Amigos de la Casa Troncal Urbina - Basabe Urbinatarren Oienetxeko Lagunak

Obra Social
Caja Vital · Vital Kutxa
Gizarte-Ekintza

Municipio de Kuartango

# Kuartango Jokano



***Arkamo mendizerraren iparraldeko isurialdean dago Jokano, 605 metroko batez besteko altitudean. Jokano abiapuntu ona da Arkamo mendizerran zehar hainbat ibilbide interesgarri egiteko. Arkamo mendigune zabala da, eta paisaia askotarikoak ditu. Koartangora jotzen duten amildegiak pagadi handiez estalirik daude.***

***Koartangoko ibarraren barnean duen kokaleku estrategikoari esker, Jokano Historiaurretik hasita beti egon da jendeztaturik. Horixe adierazten dute Arkamo mendizerraren mazelan kokatutako Solacueva izeneko haitzuloan aurkitutako aztarna interesgarriek. Erdi Aroan, jadanik desagertu den Artazuelako dorretxeko jaunek kontrolatzen zuten eskualde horretatik nor pasatzen zen. Horren adibide gisa, 1374an bertako jaunak, Iñigo Ortiz de Jocanok, ibarreko justiziari eskatu zion dorretxearen mugarrien kokapena berrikustea.***



ITURRIA / FUENTE: Instituto Geográfico Nacional

***Jokano se sitúa en la vertiente septentrional de la Sierra de Arkamo, alcanzando una altitud media de 605 metros. Constituye un buen punto de partida para realizar interesantes paseos por la Sierra de Arkamo, amplio macizo montañoso con una gran diversidad de paisajes. Los impresionantes precipicios que miran a Kuartango están cubiertos por amplios hayedos.***

***La posición estratégica de Jokano dentro del Valle de Kuartango ha favorecido su poblamiento ya desde la Prehistoria, como atestiguan los interesantes restos aparecidos en Solacueva, cueva situada en la ladera de la Sierra de Arkamo. En la época medieval los Señores de la Casa-Torre de Artazuela, hoy desaparecida, controlaban el paso por la zona, como atestigua que en 1374 su señor, Iñigo Ortiz de Jocano, solicitase a la justicia del Valle una revisión mojonera de la Torre.***

## *Andagosteko Aztarnategi Arkeologikoa*

1997an, eskualde horretan ura garraiatzeko helburuarekin egindako lanei esker, hainbat aztarna erromatar aurkitu egin ziren. Ordutik aurrera, Andagosten industeko eta aztarnak aztertzeko hainbat kanpaina egin dira. Kanpaina horietan, pieza ugari berreskuratu dira, aztarnategiaren garrantzia frogatzen duena.

Gauzatutako ikerketen emaitzek adierazten dute Andagosteko kanpamentuan **indigenen eta legionario erromatarren arteko bataila bat** gertatu zela Kristo aurreko 30. hamarkadan. Leku horretan, Euskadiko aztarna erromatarrik zaharrena aurkitu da. **Aztarna hori oso garrantzitsua da** Historiaren ikuspuntutik, bere azterketaren emaitzen arabera seguruenik beharrezkoa izango baita hainbat datu historiko eta Hispaniaren konkista erromatarrari buruzko mapak aldatzea.

Gaur egun, **mila pieza** baino gehiago daude zaharberritze eta azterketa prozesuan Gasteizko Arkeologia Museoan. Aztarnategian aurkitutako objektuen artean daude:

- material militar ugaria (gezi, *pilum* edota lantza puntak; katapulta dardoak; eta habailarekin jaurtikitzen ziren 100 *glande* edo berun pieza baino gehiago)
- soldaduen ondasunak: txanponak, *fibulak* (kateorratz modukoak), *kaligen* (legionarioen zapatak) iltzeak eta errota eramangarri txiki baten zati bat.

Zuloan egindako arkeologi indusketan oinarrituz, **kanpamentu** hori *"castra aestiva"* izenekoen motakoa zela esan daiteke. Etsaiaren lurraldea zeharkatzen zuten bitartean kanpatu behar izanez gero, legionarioek behin-behineko kanpamentu horiek erabiltzen zituzten etsaiarengandik babestearren. Aztarnategiko kanpamentuaren azalera kontutan harturik, ondorioztatu da 1.200 soldadu erromatar behintzat bazeudela kanpamentu horretan, hau da, gutxienez **bi edo hiru kohorte**.




## *Yacimiento Arqueológico de Andagostes.*

La realización de unas obras realizadas para la traída de aguas en la zona hizo aflorar en 1997 diversos restos romanos. Partiendo de este hallazgo se han sucedido durante varias campañas en Andagostes labores de excavación y estudio durante las cuales se han recuperado un número considerable de piezas, que atestiguan la importancia de este yacimiento.

Los resultados de las investigaciones llevadas a cabo hasta el momento indican que en el campamento de Andagostes tuvo lugar en la década de los años 30 a.C una **batalla entre indígenas y legionarios romanos**. En este lugar se sitúa el **vestigio romano más antiguo de Euskadi**, con una considerable importancia histórica, pues los resultados de su estudio exigirán probablemene modificar unas líneas de la Historia, y retocar los mapas de la conquista de Hispania por Roma.

Actualmente más de **mil piezas** están depósitadas en fase de restauración y estudio en el Museo Arqueológico de Vitoria. El hallazgo se compone de:

- abundante material militar (puntas de flecha, de *pilum* o lanza, dardos de catapulta y más de 100 *glandes* o piezas de plomo que se lanzaban con honda)
- Pertenencias de los soldados: monedas, *fíbulas* (especie de imperdibles), clavos de *cáliga* (calzado legionario) y un trozo de un pequeño molino pórtatil.

La excavación arqueológica realizada en el foso permite afirmar que se trataba de un **campamento** del tipo *"castra aestiva"*: instalación provisional que realizaban los legionarios ante la obligación de protegerse cuando se acampaba durante una marcha por territorio enemigo. A partir de su superficie se ha deducido el contigente de soldados romanos estaba formada al menos por 1.200 legionarios, es decir, al menos de **dos a tres cohortes**.

## *SAN MARTIN ELIZA*
## *IGLESIA DE SAN MARTÍN*





XIII. mendearen inguruko eraikuntza protogotikoa dugu hau. Nabe bakarrekoa da, ondoren hainbat gorputz erantsi zaizkiolarik. Jatorrizko tenplu erromanikotik gordetzen dira albo leihate bat, teilatuko harburuak eta portada ederra. Portada arkiboltekin eta geometri eta landare motiboekin apaindurik dago. Kapitelek irudi apaingarriak dituzte landurik.

Elizak bere oinean ageri duen multzoa, dorreak, kanpandorreak eta erlojuak osatua, 1885ekoa da. Elizaren barnean **erretaula errenazentista** ederra mirets daiteke.



Edificio protogótico, datable hacia el s. XIII, de una sola nave, a la que se le han agregado varios cuerpos. Del primitivo templo románico queda un ventanal lateral, los canecillos del tejado y una bella portada, decorada con arquivoltas y mótivos geométricos y vegetales. Sus capiteles están labrados con figuras decorativas.

El conjunto que exhibe la iglesia a sus pies, compuesto por torre, campanario y reloj data del año 1885. En el interior podemos admirar un hermoso **retablo renacentista**.



Gonzalez de Betolaza familiaren etxea, portada arkudun zabalarekin eta goi galeria handiarekin. / Casa de la Familia Gonzalez de Betolaza, con amplia portada en arco y gran galería superior.



Arkupe trakets baten gainean sostengatutako apaizetxe / Casa cural, sustentada sobre un rústico porche.

## *HERRI ARKITEKTURA*
## *ARQUITECTURA RURAL*



Jokanoko ondarerik aberatsena herri arkitekturaren arloan kokatzen da. Nekazaritza erabileretarako eraikitako etxeak dira, harriz eta zurez eginak. Euren fatxadak arkuekin, Erdi Aroko leihoekin, balkoiekin eta korridoreekin apaindurik daude.

La mayor riqueza patrimonial de Jokano se encuadra dentro de la arquitectura popular: construcciones levantadas para un uso agrario, realizadas en piedra y madera, que se embellecen en sus fachadas con arcos de acceso, ventanas medievales, balcones y corredores.











**Jokanotarren jauregia.** Eraikuntzarik interesgarrienetako bat dugu hau. XVI. mendearen lehen erdiko landa jauretxe bat da. Jauregiak ageri dituen elementu askotarikoek (guztiak etxearekin batera eraikiak) itxura berezia ematen diote etxeari.

- **Portadak** hamaika dobelaz osatutako arku zorrotz bat du, eta hainbat ezaugarri beliko mantentzen ditu, hala nola, alboetako behatxulo zeiharrak. Portadaren gainean Jokanotarren **ezkutua** ikus daiteke. Atea forjatutako iltze lodi bidez elkartutako haritzezko oholez egina dago. Atearen "apaindura" xelebreek antzinako superstizio eta sinesmenetan dute jatorria.
- **Leihate** handi eta originalak lau alde ditu: beheko aldeek karela dute; goiko aldeek, berriz, leihoburu bat dute oxkarratutako arkuak osatzen dituen jangune bikoitzarekin. Leihoburuko arku horiek Erdi Aroko dorreetako eta jauregietako arku bikien kutsua dute.
- Beheko solairuko leihoetako batean ageri da ibar osoko forja lan onenetariko bat. "Kaiola" moduko burdin **Hesi Errenazentista** bat da, eta lirio itxurako gurutze batean amaitzen diren zurtoinekin apaindurik dago.

**Palacio de los Jócanos.** Una de las construcciones de mayor interés. Se trata de una interesante casa palaciega rural, datada en la primera mitad del s. XVI. La variedad de elementos que presenta, todos ellos contemporáneos a su construcción, le confieren una singular apariencia.

- La **Portada**, en arco apuntado compuesto por once dovelas, guarda algunas características bélicas, como las mirillas sesgadas de sus flancos. Sobre ella luce el **escudo** de los Jócanos. La puerta es de tablones de roble, cosidos con gruesos clavos de forja, sus curiosos "adornos" nos hablan de antiguas supersticiones y creencias.
- El gran **Ventanal** de original traza está repartido en cuatro sectores: los inferiores están rematados por un antepecho y los superiores por un dintel con un doble rebaje en arcos festoneados, una reminiscencia de los arcos gemelos de las torres y palacios medievales.
- Una de las ventanas de la planta baja muestra uno de los mejores trabajos de forja del Valle, una **Reja Renacentista** de tipo "jaula", decorada con tallos que rematan en una cruz flordelisada.



ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS: Eduardo Martínez de Santos. MARRAZKIAK / DIBUJOS: Landatur.